

Oratoria-estrategiak

Sarrera

Dakigunez, gaur egun oratoria-estrategiak ezagutzea ezinbesteko oinarria da gure bizitzako edonolako eremuetan, nagusiki, arlo profesionalean. Hori horrela, lan honetan oratoria-estrategien inguruko ideia nagusiak plazaratuko ditugu, baita informazio gehiago non aurki dezakegun adierazi ere. Honela, ahozko komunikazioak dituen oinarrizko elementu eta alderdiak azalduko ditugu, etorkizunean mezu bat hartzaile zehatz bati zein modutan igorri behar zaion jakin ahal izateko.

Ahozko komunikazioaren oinarrizko elementuak

Ahozko komunikazioaren eremuan kokatzen garenean hainbat puntu garrantzitsu hartu behar ditugu kontuan. Berauek, gehienbat, heziketaren bidez barneratuko ditugu eta, ondoren, hausnarketaren bidez perfektzionatu. Honela, errespetuz, segurtasunez eta modu ulergarrian aritzeko elementuak ezinbestekoak izango dira, hasieran hautatu ditugun formek baldintzatuko baitute hartzaileak gure hitzaldiarekiko izango duen sententzia.

Oinarrizko elementu horiez gain, lehenik eta behin, igorlea eta hartzailea nor izango diren hartu behar da kontuan, edonolako hitzaldia idatzi edo prestatzeko orduan guztiz ezberdina baita hartzaile profesional bati, hots, hitz egingo dugun gaiaren inguruan aditua den bati, edo gai horren inguruan inolako jakintza espezifikorik ez daukan entzuleari zuzentzea. Bestalde, teknika edo jokamolde ezberdinak erabili beharko ditugu bakarriketa bat edota galdera ezberdinetara zabaldurik egongo den hitzaldi bat egin behar dugunean.

Bigarren egoeraren adibide gisa, galderetara zabaldurik dagoen debate bat jar genezake, zeinean gure azalpen eta argudioak emateaz gain, aurkakoei eginiko galderei modu egokian erantzun beharko diegun. Horretarako, ezinbestean egin dakizkigukeen galderei hartu beharko diegu aurre, baita galderak ahalik eta modu argienean erantzun ere.

Hitzik gabeko komunikazioa

Ahozko komunikazioaz gain, oratoria-estrategiei dagokienez, garrantzi handia du "hitzik gabeko komunikazioa" deritzonak (hartzaileei igortzen diegun informazioaren %97a da). Hitzik gabeko komunikazioan hiru osagai biltzen dira, ezinbestean aintzat hartu beharko ditugunak edonolako hitzaldia aurrez prestatzerako unean:

- Alderdi kinesikoa:

Maila honetan, nagusiki, gorpuzkera, keinuak, aurpegi-adierazpena, begirada, irribarrea eta janzkera hartu behar dira kontuan. Honek guztiak, antzerkiaren itxura baldin badu ere, berebiziko garrantzia du igorlearen eta hartzailearen lehen harremana finkatzeko unean aurrez aipaturikoek azaleraziko baitute, esaterako, hartzaileari ematen diogun konfiantza-maila (janzkeraren ondorioz edota keinuengatik hurbiltasun irudipena eman dezake pertsona jakin batek).

- Alderdi paralinguistikoa:

Azterketa honen muina ahotsean datza, tonua, bolumena eta erritmoa izango baititu aztergai. Ahotsaren bidez, aurrez adierazi lez, segurtasuna adierazi beharko dugu, une bakoitzaren arabera hizkeraren erritmoa aldatuz eta une garrantzitsuetan ahotsaren bolumena igoaz. Esaterako, ez da berdina maitasunezko gutun bat irakurtzea edo gerra-adierazpen bat plazaratzea.

- Alderdi proxemikoa:

Alderdi hau oratoria-estrategia gisa, besteak bezain garrantzitsua edota funtsezkoa ez den arren, ezinbestekoa da hitzaldi bat osatzerako unean kontuan izatea. Izan ere, jokabide proxemikoaren funtsa gertutasuna eta kontaktu pertsonala izanik, kontuan izan beharko da lurralde eremu zehatz horretan ezagutzen diren terminoak erabili behar direla hartzailearengana mezua oso osorik iritsi dadin.

Ahozko komunikazioa arlo juridikoan

Ahozko komunikaziorako oratoria-estrategia hauek berebiziko garrantzia eskuratzen dute arlo juridikoan erabiltzen direnean, izan ere, hizkera bera asko zaindu behar den eremua da berau. Honela, idatzizko testuak epaitegi edo auzitegietan aurkezten badira ere, orden jurisdikzionaletan ahozko epaiketak egin ohi dira, zeinetan ahozkotasunaren bidez ordezkutzen den alderdia defendatu behar dugun edota lekukoak modu egoki batean galdekatu.

Oratoria-estrategiak hobetu ahal izateko pauso handiak egin dira azken urteetan, eskuliburu ugari plazaratu baitira arlo hori jorratzea helburu dutenak. Esaterako, modu logiko batean, ezberdindu behar da askoz ere teknikoagoa den epaileari zuzentzen garen modua eta lekukoarengana zuzentzen garena. Kontuan izan behar da ere, zein orden jurisdikzionaletan aurkitzen garen, esaterako, orden penalean hitzekin askoz zehatzagoa izan beharko baitugu zibilean baino.

Galdeketetan are eta kontu handiagoarekin jardun beharko dugu, izan ere, lekukoaren urduritasuna kontuan izanik, oso erraza izango da honek galdera baten esanahia edota nondik norakoa ez ulertzea. Beraz, oso garrantzitsua da hartzailearen posizioa kontuan izatea eta bereziki galderak modu argi eta antolatuan egitea, honi jarraiki erantzunak ere argiak eta osatuak izan daitezten.

Aurrez esanikoaz gain, biziki azpimarratu behar da itzultzaileek egiten duten lan bikaina, bereziki une berean itzuli behar duten interpreteena. Ez da batere erraza gertatzen une berean beste hizkuntza bat hartzaile gehiagok uler dezaten itzultzea, are eta gutxiago jatorrizko hizkuntzan esaniko esaera zaharrak edota toki zehatz batean soilik ulertzen diren txisteak direnean.

Ondorioa

Ondorioz, jendaurrean hitz egiten dugunean, aurrez aipaturiko gomendio edo irizpideak ezinbestean izan behar ditugu kontuan. Hala egitea sarritan errazagoa gertatu ohi da hartzailearen posizioan kokatuko bagina, honelaxe ikusiko baikenuke zein den hartzailearengana iristea nahi dugun informazioa, egokia den edota honek zein sentazio ematen duen.

Aurrez adieraziriko guztia modu argiago eta sakonago batean azaltzen duten hainbat dokumentu aurki genitzake interneten. Baliabide hauek oso baliagarriak dira nagusiki jendaurrean nola hitz egin ikasi eta aztertu ahal izateko, baina baita edonolako elkarrizketetan praktikan ipintzeko ere, bereziki lan eremuan. Besteak beste, interneten aholkuak ematen dizkiguten ezinbesteko honako baliabideak aurkitu genitzake, baita hainbat paperezko eskuliburu ere:

- <http://delta.cs.cinvestav.mx/~francisco/semtesis/Seminario3d.pdf>
- http://www.protocolo.org/social/conversar_hablar/hablar_en_publico_pautas_y_consejos.html
- <http://www.tecnicasparahablarenpublico.com/>
- http://wzar.unizar.es/servicios/asesorias/archivos_pdf/hablarenpublico2.pdf

Garzia, J., 2008. *Jendaurrean hizlari*. Irun: Alberdania.

Briz, A. eta beste, 2008. *Saber hablar*. Madril: Instituto Cervantes-Aguilar

García, J., 2008. *Estrategia de oratoria práctica para abogados*. Madril: Colex.

Martínez, J. M., 2008. *Manual de comunicación persuasiva para juristas*. Madril: La Ley.

García, J. eta Ortas, S., 2007. *Estrategia de negociación práctica para abogados*. Madril: Colex